

GOTZAIN ESKUTITZ BAT DALA ETA

Eskutitz au Españako Gotzain Konferentziak 2002.eko azaroaren 22an argitaratua da: "Españako terrorismoaren balorazio morala. Aren sorburuak eta ondorioak". ETaren terrorismoa gaitzesten dau eta "nazionalismo totalitarioa". Au dala eta, komentario naiko izan ziran urrengo egunetan. Izan be, idatziak, nazionalismo totalitarioaz dagiala iragarri ondoren (26 zenbakian), jarraian, arrazoiak eztabaidatzeko orduan, naasta egiten ditu egitez nazionalismo guztiak. Egite au azpimarratua izan zan, eta ni ez naz alderdi onetatik testoaren analisi orretan sartuko. Baiña jazoera onek eliz-agiriei buruz gogoeta egitera bultzatzen dau. Atsegiña ez da gai oneetaz idaztea. Ez dogu arazotik urrin lez, aske eta lasai idazten: terrorismoak bereak dituan samiña eta izua gure erriaren gaiñera jausten dira, eta politika zatiketaren griñak geroago eta itsuago biurtzen dau giroa. Edozein gogoeta susmagarria dogu, eta sumiña areagotzeko bide biurtzen da

Berezko danez, terrorismoari buruzko gaitzesteak berak ez dau eragozpenik sortu. Arazoak nazionalismoari buruzko eritziez izan dira. Dana dala, gotzain agiri au ulertzean, aren esanaia (eta autoridadea, leukan eiñean), bere asmu orokor eta argiari jarraituz, nazionalismo totalitoriora mugatu bear da, onetaz bakarrik jardun nai dauala diñoanez. Oso bidezko da duda barik, azterketa egikeran, gero egitez, arrazoiketan, ez dauala muga ori zaintzen epaitzea. Au idaztiaren barne koe-

rentzi-eza da. Baiña idazkiaren nazionalismoari buruzko epaia, azken baten, arrazoiketa naastu eta inkoerenteak gorabera, “nazionalismo totalitarioari” buruzkotzat artu bear dira, bere baieztapenari jarrai. Egia da koerentzi-eza ez dala indiferentea, ez auzi objetiboari buruz eta ez idazkiaren asmuari berari buruz. Barne-koerentzi ezak eta naasteak arrazoiketa bera illuntzen eta makaltzen daualako. Or emondako arrazoi batzuk ez dabe nazionalismo totalitarioaren ez-zillegitasuna probatzen. Eta egitez, nai ez dala balitz be, ezegoki ekarritako arrazoi utsalak nazionalismo demokratikoa erasoten dabe. Jakiña, guttiz gagoz totalitarismoaren kontra (edozein lekutakoa dala), baiña ez arrazoiketa orri esker.

Gotzainak, kristau ikuspegitik, beste barik terrorismoaren eta totalitarismoaren kontrako epai morala zuzen-zuzen emon balebe, naiko izango litzakean. Baiña terrorismoaren kontrako epai au emonda dagoz orain artean be. Analisia eta arrazoiketa oiñarritua burutu nai izan dabez terrorismoari eta onen giro dan nazionalismo totalitarioari buruz. Ez dira eldu arrazoiketa sakon oiñarritu orretara, eta, ostera, gogoratu dodan lez, naastea sortu dabe, balore eta jarrera etikoak indartu bearrean.

1. Terrorismoa. Gogoeta osoagoa egin nai izatekotan, istoria une onetan, leenengo, terrorismo **kontzeptua** non asten eta non amaitzen dan aztertu bear zan. Oar oneek egikeran ez dot iñondik ETaren terrorismoaren kontrako epaia indargetu nai. Epai ori sarritan emon da, eta argiegi dago moral eta kristautasun aldetik ezin daitekela terrorismo ori iñondik onartu. Agiria saiatzen da terrorismo ideia zeazten. Baiña asikeratik terrorismo konkreto bat gogoan dauan ezkerro (agiriak autortzen dauan lez), terrorismo ideia ETaren egiteetara mugatzen da. Badira, ostera, beste biolentzi batzuk izua sortuz besteak menperatu eta euren elburuak lortu nai dituenak. Olakoak asko izan dira istorian zear, eta badira gaur egunean. Nire oarkizun oni erantzun daitekio terrorismo konkreto bataz jardun nai

izan dabenez, naiko dala orren ideia objetiboa zeaztea, izan daitekezan beste terrorismo motak aztertu barik. Onartu daiteke erantzun au, berez eta orokorki, metodo aldetik. Baiña, ondorioz, autortu bear da azterketa ez dala osoa, eta, batez be, orrela ETAREN inguruan izan diran beste biolentzi batzuk ez dirala gogoan artzen. Ez da au garrantzi bakoa, ez da norberak bere naiara mugatzen dauan metodo auzi utsa. ETA sustraitik aztertu nai izatekotan beste biolentzi batzuk aztertzea bearrezkoa da. Baleiteke batzuk, inguruko biolentzi orreek aipatuaz, ETAREN terrorismoaren gaiztakeria gitxiagotu egiten dala bildur izatea. Nik bestera uste dot: ETAREN, eta beste edozein terrorismoaren gaiztakeria gaitzesteko ez da egiarik ebagi edo estali bear. Zenbat eta objetiboago eta zeatzago etika oiñarrian jokatutu, garbiago eta zuzenago ikusten da gaiztakeria ori.

Bigarren, terrorismoaren **sorburua** da naitanaiezkoa, edozein terrorismoz ari garala. Gotzain agiri onek aztertzen dau ETAREN sorburua, eta nazionalismo totalitarioan aurkitzen dau. Ondo dago. Baiña ez da orrela asko aurreratzen. Azken baten, analisi orretan ETAREN terrorismoak berak definitzen dau nazionalismo totalitarioa. Azpian, estruktura au aurkitzen dogu: Zer da nazionalismo totalitarioa? ETAREN terrorismora daroana, terrorismo ori justifikatzen dauana. Gaurko ETA eta beronen nazionalismo totalitarioa baterakoak dira. Orregaitik esan dot analisi orregaz ez dala ezer aurreratzen. Itxurazkoa dirudi geiago. Agiriak ez dau fenomeno guzti ori nondik eta zelan sortu izan dan itauntzen. Orretarako, arazoa unibersalago eta objetiboago ikusi bear zan: orokorki terrorismoak nondik eta zelan sortzen diran, ez emengoa bakarrik, edozein lekutakoa. Zelako egoerak baldintzatzen dituen. Itxaropen-ezak, urtenbiderik ez ikusteak, sortzen dituen. Askotarikoak izan daitekez, eta euren sorburu eta baldintzak era ezbardiñetakoak. Terrorismo orreekaz eta euren sorburuakaz daukagu geroago eta geiago zerikusia. Beti dira gizatasun kontrakoak, izukeria ankerrak. Baiña guretzat, epai morala ezeze, euren sorburuak aztertzea da bearrezkoa. Terroristak ez garala uste dogunok,

erantzukizunik daukagun areen sorkuntzan. Munduko terrorismoen aurrean, orokorki, galdetu bearko litzake, esate baterako, ea zapalketatik, miseriatik, duintasun ezatik sortzen ez diran. Eta beraz, nortzuk eta zelako egoerak dauken sorkuntza orretan erantzukizuna. ETAk be istorikoki bere sorrera baldintzak izan ditu, ezagutuak diranak. Gotzainak ez dabe orretan sartu nai izan, jazoera bera, fenomenoa bakarrik gaitzetsiz. Gaitzezpen morala argi dago. Baiña, terrorismoa aalmen osoagoz gaitzesteko, eta batez be gainditzeko, bere sorrera baldintzak, berak eskeintzen dituan zergaitiak, eta autortzen ez dauan nondik urten-eziña, izan bear dira kontuan.

Sorrera konkretoa aztertu ez dauanez, **urtenbiderik** be ez dau eskeintzen. Dokumentu osoa kondenatzeko egina da (ainbeste bidar, eliz-arduradunak ezeze, alderdi politikuak eta giza-taldeak egiña, eta benetan beti barriro gogora bearrekoa). Ez da, ostera, bakearen alde (terrorismoa gainditzeko) aurreratu izan diran baldintzen, pausuen, inizatiben aipamenik egiten. Pausu orreek arazoaren azterketak eta istillua gainditzeko urtenbideak izan dira. Agiri onetan ez dira sartzen. Bai “azpimarratu” nai da, konklusioan, igaro batean, “dialogoa” giza istilluen urtenbidetzat (alkarrizketa mugatua) (40 zb.), eta eskerrek emoten dira konbibilitza obetzeko egiten diran aalegiñakaitik (41 zb.). Badau bere balioa, gaurko inguruan, aipamen onek. Alan be, egiaz aipamen orokorra da, ezer zeazten ez dauana, eta, antza danez, iñor beartzen ez dauana. Beraz, gotzain idazki au, bere partez, aalegin guzti areek baiño atzerago gelditzen da.

Proposamen eta erremedioen bearrean gagozan ordu onetan, eta askok urratu nai dituen bide orreen ondoan, agiri au moralismoan geratu da. Epai orretan sorkuntza iturriak aztertu edo beintzat aipatu ez izateak, arazo luze onetatik urteteko biderik ez eskeintzeak, eta nazionalismo guztiak egitez naasta egiteak, zoritxarrez, terrorismoaren kontrako bere arrazoiketa makaldu egiten dabe.

Terrorismoan sartuta dagozanekin, zer erlaziño jarten dau agiri onek? Aalegintzen ete da euren barruan, pentsakeran, baldintzetan sartzen, onek ulertuz dagokien erantzuna emote-ko? Leendik eta berez konbentziduta gagozanak bat gatoz epai moralaz. Baiña besteei eskeintzen ete deutse pentsaazoteko biderik? Orretarako, barruko alkarrizketan sartu bear da; areen arazoak, nondik-norakoak, arrazoiketaren oiñarriak ezagutzen dirala erakutsi bear da. Eta orduan, guzti ori kontuan izanik, erabilitako terrorismo-bideak eziñezkoak dirala erakutsi, eta batera gizalegezko urtenbideak argitu. Jarrera au orokorki naitanaezkoa dogu gaurko munduko terrorismoaren aurrean.

Urtenbide onek aipatzean, batera, terrorismoaren inguruan dagozenakaz egin bear da berba. Au da, gizarteagaz, eta onen erantzukizun ofiziala daben estaduko eta beste arloetako arduradunekin. Terrorismoaren sustriak, baldintzak astertu badira, gizarteak eta arduradunak baldintza orreetan bearbada badabela euren partea ikusiko zan, edo beintzat urtenbideak errazten aalegindu bear dabela.

Ikuspegi zabalago au aurkeztea zaila da, gure artean eta kanpoan. Gizarteak eta arduradunak ez dabe, sarritan, ezertariko parterik autortuko, edo gizabidezko urtenbideak itzitasun eta saldukeriatzat ulertuak izango dira. Alan be, olako ideiak eta aalegiñak beste persona eta talde batzuk be egin izan dabez. Eliz-arduradunak izan bear leukee gauza olako ikuspegi sakona, independientea eta egizkoa urratzeko. Ez dagoz besteak esaten dabena errepikatzeko.

2. Nazionalismoaz jardutean (beraz, orain, terrorismoak birrintzen dituan giza eskubide oiñarrizkoak aparte itzi ditugula), naiko izango litzakean demokrazia printzipioa eta solidaritate printzipioa aztertzea eta or geratzea. Nazionalismo guztiak, eta areen kontrakoak, orra bildu bear dabe euren gogoeta eta alkarrizketa aalegiñean. Gotzainen ikuspegitik, ez zan bear printzipio bi onek zeatz eta sendo zaintzea baiño. Beste guztia

politika konkretoaren esku dago, eta gotzainen ikuspegitik ez da ortik aurrera jo bear. Solidaritateak gaurko estaduak eta biarkoak (nazionalismoak) bardin beartzen ditu, errialde guztiei begira. Ez dau sistema politiko bakarra izatera beartzen. Edozein sistematan izan bear da solidario. Konturatzen gara, gai onetan, era askotako arazo partikularrak aurkeztu daitekezala egoara ezbarदिñetan. Egoismo ekonomiko utsa izan daiteke banandu guraren azpiko zioa, besteen kaltegarri. Baiña, orokorki, bere lekuan sentitzen dan erriak aukera geiago dauka solidario izateko be, alboko eta urriñeko erriakaz. Demokrazia printzipioa, bere azkenera eroanda, naiko da errialdeen eskubide politikoak (besteekiko erlaziñoak eta barneko antolamentuak) oiñarrizteko. Alde bietatik, prozesuak be demokratikoa eta solidarioa izan bear dau. Printzipio demokratikoa ez da abstraktoa, eta ez naikeriazkoa. Kasu onetan, errialdearen borondatea errespetatzea da. Borondate ori istoriko eta konkretoa da: istori eta komunitate baldintzak eratzen eta bideratzen dabe: “gu” izatearen sentiera eratzen dabelako. Baiña azken baten, guzti ori barruan artzen dauan erriaren borondateak erabagitzen dau. Borondate au errespetatzea da printzipio demokratikoa. Bakoitza izan daitela bere lekuan: zein dan bere lekua ain zuzen dagokion erriaren borondateak zeazten dau (borondate konkreto eta solidarioa, esan dan lez).

Gure gogoetak, gai onetan, naitanaiez izan bear dau gogotan istoriaren irakatsi au (giza jardunaren muiña erakusten dau eta): alde batetik, gaurko estaduak zelako bortxazko bideetatik eratu diran. Eta bestetik, erakuntza ori lortutakoan, indarra esku izan dabenak ez dabela geienetan printzipio demokratikoa kriterio izan, eta aurreko egoerea indarraz mantentzera jo dabela. Beraz, estadu barria izatera eldu diran errialdeak be indarra erabilli bear izan dabela orretarako. Esate baterako, estaduen kolonia istoriak ori erakusten dau. Zoritxarrez, giza istoria ez da eskubideen eta alkarrizketaren istoria izan, indarrezko ezarpenaren istoria baiño. Ez da orain au indarraren bearrizana ezarteko aipatzen, istoria aintzatsuen giza-miseria

erakusteko baiño. Gaur istoria etsigarri onen ikuskizunak saltu kualitiboa emotera beartzen gaitu gure pentsakera osoan, eta iñor baiño geiago beartzen ditu ebanjelioko jarreretan oiñarritzen diranak printzipio demokratikoaren gizatasuna eta bearrizana barneratzera. Onartu bear dogu, jakiña, batez be istoria epaitzean, errealismo morala, eta onen araura, esate baterako, norberaren defentsaren bidezko erizpidea. Orretan oiñarritzen izan da indarra (biolentzi bidezkoa) erabiltea eta “guda zuzena”. Baiña autortu bear dogu kristautasunaren istorian kristau printzipioak (bake, alkartasun, tolerantzi eta zuzentasun printzipioak) eragin gitxi izan daukela, kristautasuna bera biolentzi eragille biurtzeraiño. Au da orain, gogoeta onetan, nire azken ardurea. Baiña onek, política erlazioñoetan, printzipio demokratikoaren koerentzia eskatzen dau (giza-lojika). Bestera, indarraren dinamikan jausten gara (ia istoria osoan nagusi izan dan pizti-dinamikan). Beraz, terrorismoaz (eta nazionalismoaz) jardukeran, esentziala da printzipio demokratiko onetaz gogoeta egitea. Moralismo eta boluntarismoan ibilli ez gaitezaz, errien alkar-bizitzarako giza-oiñarriak egiaz ezarri barik.

3. Eliz-arduradunak egin bear dau berba mundu onetako arazo publikoei buruz. Edozein gizakik eta edozein taldek, ain zuzen be demokraziaren barruan eta erlejiño eta estadu bananduaren sistema barruan, euren iritzia agertzeko dauken eskubideaz. Eliz eta ebanjelio aldetik egin bear dau berba, kristau komunitatean dauan erantzukizunagaitik. Ebanjelioa eta kristau zentzua ostera be pribatua eta “beste mundurakoa” biurtu ez daiten. Ebanjelioak (kristau zentzuak) ez leuke gizartea eratzean (gizakiaren izatea eta duintasuna baldintzatzen dauan erakundean) eragiñik izango. Gaur bat gatoz erizpide onetan. Baiña onek mugez **neurria** eskatzen dau bakoitzean: Noraiño eldu daiteke? Noraiño da bearezkoa eta non asten da eritzi askeko bidea, beste batzuek jareiz zeaztu bear dabena? Argi dago eliz-arduradunak ez daukela arazoak zeazteko apar-

teko mediorik ez eskubiderik. Personen eta errien oiñarrizko eskubideak gogoratzea dabe bearrezko eta naiko.

Beste baldintza bat be eskatzen dau eginkizun onek: **jakitearen soziolojia**, gaur egunean sarri aipatu oi dana. Gure eritziak, sendoak iruditu arren, eta, neurri baten beintzat, agiazkoak be bai, istoriak baldintzatuak dirala. Istoria konkretoak, neu bizi nazan bizitza lekuak (jeografikoak eta kulturalak) baldintzatuak. Erizpide au kontuan izan ez izateak, dogmatismoa, abusua eta utsegitea ekarri ditu Elizaren istorian. Gaur, teorikoki, onartua da geien baten jakitearen soziolojia, baiña bearbada teorikoki bakarrik. Egiaz, ez da erreza gauzatzea: batera egia eta zuzentasun maitasuna eta erizpide kritiko au zaindu bear dira eta. Ostera, ez litzake bapere gaitza izango erizpide au ez dala kontuan izaten eta istoriako errakuntzetatik larregirik ez dala ikasten ikus-azotea. Oraindiño epai absolutoak emoten jarraitzen da eta. Erizpide onek besteen egoerara urreratzea eskatzen dau. Zergaitik dituan beste era bateko eritziak, zer billatzen dauan, zer esan gura dauan. Nik ikusten dodan argia, benetan argia dan ala neure interesa, neure betiko bizi-ingurua. Au bearrezkoago da eliz-arduradunentzat, ain zuzen be besteei irakasten lez berba egiten dabe eta.

4. Orregaitik mundu onetako arazoei buruz berba egiten danean, konkretoago eta autoridadea jokoan ipiñiz egiten danean, **adituen eritzi laguntza** bear dabe eliz-agiriak. Esate baterako, oraingo auzi onetan, bai terrorismoaz (bere zabalera osoan aztertu bear danean) eta bai nazionalismoaz gaur egunean gogoeta eta inizitiba naiko izan dira.. Adituak ideiak eta konponbideak aztertu izan ditue, geure artean eta kanpoan. Alkarrizketa bearrak azterketa zeatzak egitera beartu ditu, pluralismo eta demokraziaren barruan (eta gogorkeriari aurre egiteko). Nik ez dakit kasu onetan eta antzekoetan olako laguntzarik eskatu izan dan. Zabala izan danik beintzat ez da agiri. Gotzain idazki onen egitura eskasak eta zeaztasun ezak ez dau

orren antzik. Dana dala, emen adituen laguntza eta alkar-lanaren bearrizana azpimarratu nai dot. Kristau fedearentzat berezkoena da Jaunaren Espirituaren presentzian siñestea. Baiña presentzia au ez da majikoa. Borondate onaren bidez (benetako fede biziaren bidez) gauzatzen da. Borondate onak, ostera, arazo objetiboak eskatzen dauan alkar-laguntzara bultzatzen dau.

Eliz-arduradunen idazki ofizialak txalotuak izatea ez da erizpidea. Zapuztuak izatea be ez. Baiña istillu eta aurkatasunen artean be euren sendotasuna eta itzala zaindu edo berreskuratu bear dabez. Sendotasun ori euren giza ikuspegiaren zabal-sakonean datza, eta aske eta menpetasunik gabe, giza duintasunak zuzendurik, eritzi emotean.

Luis Arostegi